ELGOIBARKO ASTEKARIA • 2002ko otsailaren 22a/XX urtea/394. zkia

**ERREPORTAJEA** • PEDRO MUGURUZA HIL ZENEKO 50. URTEURRENA BETE DA • **GEHIGARRIA** KILIBARR
• **KULTUR ELKARRIZKETA** KONDIA ENPRESARENTZAT HIZTEGI TEKNIKOA EGIN DUTENEI

# BARREN
ASTEKARIA



## Pedro Muguruza:
# Bere lanengatik gogoan dugun arkitekto elgoibartarra

PILAR IKASTETXEA

Elgoibar

# Gurekin Hasi









# Gurekin Hezi

**AURREMATRIKULA EPEA:**

**OTSAILAREN 18tik MARTX0AREN 1era**

**MATRIKULATZEKO ORDUTEGIA:**

**EGUNERO 9:00etatik 19:00etara**

**ARGIBIDEAK:**

**943741331 telefonoan**



## Hankasartzeak

Joan den asteartean PNV-EAJk, PSE-EEk eta PPk hartu zuten erabakiak ustekabean harrapatu ninduen. Eusko Legebiltzarrean gertatzen denari kontu egiten diodan estreinako aldia izan zen. Atentzioa eman zidan, ordezkari politikoen `ongizatea'-ren kalterako erabakia hartu zutelako. Jakingo duzue zertaz ari naizen. Badakizue, legebiltzarreko ordezkariek gehieneko pentsioa jasotzeko eskubidea aitortzen zuen legeari buruz. Lau urte lan eginez gero, Iegebiltzarkideek Estatuaren patrikatik sos batzuk jasotzeko eskubidea zuten jubilatzerakoan. Beno, sos batzuk esatea gutxi begitantzen zait, gehieneko pentsioa 1.935 euro baitira, 325.000 pezeta! -`11ori bai mauka!' -pentsatu nuen benia entzun nuenean. Baina hara non, gauzak aldiz pentsatu antza, eta atzerabidean jarri diren alderdi politikoak. Erabakia onartu zuten hiru alderdiek atzera egin dute. Zergatik? Batek daki! Lotsagorritu egingo ote ziren? Ez dut uste. Aspaldi erakutsi ziguten politikariek lotsa izpirik ez dutela. Zergatik orduan okerrak zuzentzeko premia hori? Erabakia bertan behera uzteko bilerak 10 minutu baino ez zituen iraun.

Erabakia indarge utzi dute, baina inork ez du hankasartzearengatik damua aitortu. Inozoa ni! Politikariek ez dute sekula santan hanka sartu dutela aitortzen!

Ainhoa Lodoso

(-73-

o

o

C-)



## ASTEKO EGUN BAT

Asteartea da, hilak 19. Egun bat, beste egun bat, egun arrunt bat. Goizaldeko nagiak kendu ostean, ohi bezala ekin diot eguneroko iharduerari: dutxa eder bat ganoraz esnatzeko eta gosari arin bat mugimenduan hasteko. Euria dihardu. Apenas zaparrada handia den, baina zerua gero eta goibelago jartzen ari da. Zorionez. Ea eurite eder batek bazterrak garbitu eta urtegiak betetzen dituen. Ez dut laket euria, baina eguzkizale amorratua naizen arren, ohitu naiz jadanik gure herri honetako eurialdi luzeetara.

Kotxean eman ditut lehen orduak. Ikastetxez ikastetxe ibiltzera behartzen nau Ianak. Irakasleak ditut nire beharren helburu. Gustuko dut lanbide hau, pertsona ezberdin askorekin harremanetan jartzen bainau, baina era berean ez da lan goxoa, egunero-egunero momentu goibel eta umoregabeak disi mul atzera derrigortuta bainago. Hasieran gogorra irudi zekidakeen arren, ohitu naiz jadanik gorabehera hauetara.

> "Gazte batek atentatu bat jasan du. Sarriegi gertatu ohi den zerhait izan arren, ez naiz horretara ohitu"

Eibarko eta Ermuako bihotzak gurutzatu behar izan ditut. Ezinbestekoa erabakitako ikastetxeetara iristeko. Irratian, Bartzelonatik emisioa egiten duen programa bat, Del OImo jauna hizlari delarik. Bere izugarrizko barrabaskeriak izan ditut bidelagun, baina masokismo hutsa dirudien arren, ohitu naiz jadanik trafiko oztopoetara eta bestearen barrabaskerietara.

9:15ak aldera lehen berria: gazte batek atentatu bat jasan du. Arrazoia? Ba aI dago arrazoirik? Bere pekatua? Sozialisten gazteen erakundeko kide izatea. Opresorea, jakina. Sarriegi gertatu den zerbait den arren ez naiz inoiz horretara ohitu, ez eta ohitzerik nahi ere. Ez da beste egun bat, egun arrunt bat.

Gotzon Arrieta

-111111

linexak .......... 5
MOtZ MotZ .......... 8
gehigarria .......... 13
kiRolAk .......... 21
aGencla .......... 24

2002-II-22

### KEZKATZEKO HAINBAT MOTIBO

Pozik hartu dugu Irukurutzeta-Karakaten oraingoz zentral eolikorik egingo ez dutenaren berria. Eskertzekoa da udalerri desberdinek gai honen inguruan egin duten ahalegina. Dena den, gure zilborrari begiratzeaz at, gure herri eta inguruetan baditugu kezkatzeko arrazoi aunitz. Honen adibide ditugu, Plan Estrategiko bezala ezagutzen den proiektuaren besapean aurkitzen diren ondorengo proiektuak:

Zentral Eolikoak, EAEn. 2005. urterako, kontsumitzen dugun argindarraren %3 haize indarrez lortu nahi da, horretarako 800 metroko altueratik gorako 13 kokaleku aurkezten dira, bi fase desberdinetan banatuta. Honako hauek dira egin behar dituzten lehenak: Badaia Mendiak (Araba), Ordunte, Gailekorta, Oiz (Bizkaia), Elgea-Urkilla eta Mandoegi (Gipuzkoa). Proiektu hauek EVE, Iberdrola, Gamesa eta BBVA bezalako entitateek gidatuak dira.

Zentral termiko eta gas "naturala"-ri lotutakoak. Boroako Zentral termikoaren proiektua Zornotzan. Zikto konbinatuko zentral termiko hau ESB konpainia irlandarrak egingo du. Besteak beste, honek 800 MW ekoizteko ahalmena eta 60.000 milioiko inbertsioa izango du. Santurtziko zentral berria, ziklo konbinatua eta gasa erabittzen duena, Iberdrolak eraikiko du. Honek 400 MW ekoizteko ahalmena eta 25.000 milioiko inbertsioa izango du. "Bahia Bizkaia Gas" birgasifikatzailea eta "Bahia Bizkaia Eleetricidad" erantsitako zentral termikoa, Zierbenako "superportuan" kokatuak. Proiektu handi hauen lana, gas naturala urtu eta likidotua birgasifikatu ondoren, elektrizitatea sortuko duen zentral termikoetara banatzea litzateke. Hauek, Iberdrola, Repsol, BP Amoco eta EVEk bultzatutakoak dira.

' Hau dena gutxi ez eta ezin ahaztu Abiadura Handiko Tren famatua, Jaizkibelgo superportua, Baiona-Donostia Euro-hiria, e.a Iuze bat.

Hala bada, sar dadila kalabazan eta atera dadila Gasteizko plazan!

**"Karakate-Irukurutzeta bizirik" plataforma**

## Urrunnoren begi ezkutua

# Damua



King-kong pelikula .ikusi zuenetik, berak ere gorila erraldoi baten eskuan bizitzea desio zuen. Animalia basati baten xamurtasunean babestua sentitzea. Horregatik, herriko eraikuntzarik altuenera igo zen. Eta han goitik begiratuta, txikia ikusi zuen bere burua. Indarrik gabea. Inportantziarik gabea. Suizidio hitzak pac-rnan mamorroak bezala burua jan zion. Teilatutik behera jauzi egin zuenean, pasioak marraztutako zimurrak ikusi zizkion izara bati. Eta bigarren pisura iritsi zenerako, damutu egin zen. Atzera bueltarik gabeko damua.

**JASONE OSORO**

ASTEKARIA
BaRRen

NaLarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
2 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comrbarren
ARGITARATTAILEA
Elpibarkolzarra

LAGUNTZAILEA Elgoitaska Udala ZUDENbARIA EllAizpuru KATETARIAK IratiAglreazaldegr Asier Ondea PUBLIZITATEIt AMDIR Erkizja MAKETATZAJLEA, Iker Diega ADMNSTRAZIOA Arnaia Rodrigez GE8Erna42on Peli Uriguen Keueereuzflabur Ainhaa Ladoso, Neslor Fun nre, Pallo Mendizatal, Juan M. Elustando, Alberto Ansuategi, Edurne Bilbao, GotzonArriete, Lorea Perez cre Albeniz, Jokin Maninez, liontse Arregi,Juanito Gorastiza, Ainhda Annonegr ttotme K.E. eta Urruzuno AZALEKLI ESAERA ZAHARRA Golzon Garatordn liburtnik ImmoinsaiA Gertu Koop. E. TIRADA 4.025 ale LEGE GORDAJLUA SS-1.03W92 ISSN 1139-1855

EIGOIBAIKMARRIS

*Elgoibarko Urialak, Eusko fauriaritzako Kultura Sailak eta Fora Aldundiak diraz lagandruako aldizkaria.*

kutxa
zuri esker

teNDANOBAT
HE.0.10011,

GO ITI itlETABTA
GEUPO DANOILAT

## TXALOAK

Herritar batek karnabaletako astearte arratsaldean "motxailaz" jantzi zen lagun taldea txalotu nahi du: "Eskerrik asko herriko kaleak alaitzeagatik eta jarraitu horrela urte askoan", esan digu.



<>San Rokeko emakume batek udaltzainak txalotu nahi ditu eta honakoa esan digu: "Etxean sartu ezinda gelditu nintzen, giltza barruan laga nuelako. Udaltzainek asko lagundu zidaten eta egin zidaten faborea eskertu nahi diet".

## na

OBi mutil gazte etorri zaizkigu erredakziora Santa Klara auzoan dagoen futbolean jokatzeko parkearen egoeraz kexatzera: "Futbol zelaiko marrak margotzea komeni da. Ez da ezer ere ikusten eta marrak margotuta bakarrik, alde handia izango Iitzateke guretzat".

<>Gizonezko bat, asteburuetan herrian egon ohi den zalapartarekin, munizipalek multarik ipintzen ez dutela-eta kexu da: "Astean zehar multa mordoa ipintzen dituzte, baina, gero asteburua heltzen denean, hau guztia "desmadre" bat izan arren, eta autoak edozein eratara aparkatu arren, kasurik ez dute egiten", esan digu.



<>Basarte auzoko bizilagun bat etorri zaigu BARRENera eta, lehen aldia ez bada ere, kexa hau argitaratzeko eskatu digu: " Mekanikatik Basartera doan bidea asfaltau biharrian eta argixak ipini biharrian dao. Jende asko pasatzen da, batez ere, eurixa eitxen dabanian eta Basarten bizi geranok, arazo larrixa dakagu bertatik ibatzeko".




Atal honetan kexa, txalo edo galdera argitaratzeko bidali posta elektronikoa, izena eta zure telefono zenbakia zehaztuz, barren@topagunea.com, helbidera.

# Pecro Yij urtya Elgoi IL{O nte^{to ogetstm

*Otsai1aren 3an Pedro Muguruza Otaño arkitekto elgoibartarra hil zeneko 50. urteurrena bete zen. "El Valle de las Caidos" Francisco Franco generalaren aginduz egin zuen proiektuarengatik pasa zen historia liburuetara, baina gaur egun Euskal Herriko ezaugarri diren beste hainbat eraikuntzen egi1ea ere bada. Hala nola, Donastiako Urgull mendiko eta Bilboko Gran Viako Bihotz Sakratuak egitearen arduraduna dugu. Pedroren lanak Paris, Lisboa, Ber1in, Montevideo, Florida eta beste hiri batzutan daude. Arkitekto gisa mundu osoan egin zituen lanez eta lortu zuen ospeaz gain, Athletico de Madrid futbol taldean jokatzera iritsi zen, 1au aldiz egon zen fusilamendu pelotoi baten aurrean Gerra Zibilean eta Elgoibarko "seme kuttun" izendatu zuten 1946. urtean, besteak beste.*

## MADRILEN JAIOTAKO ELGOIBARTARRA...



Pedro Muguruza 1893ko maiatzaren 25ean jaio zen Madrilen. Kasualitatez jaio zen bertan, baina beti izan zuen bere burua elgoibartartzat. Domingo Muguruza Ibarguren (1857-1923), Pedroren aita Elgoibarren jaio zen. Bide, kanal eta portu ingeniaria izan zen eta lan garrantzitsuak egin zituen, Murtziako Santa Teresa zubia esaterako, edo Alfonso XIII.aren urtegia, Ciezan (Murtzia). Domingo, Matilde Otaño Berroeta (1868-1943) donostiarrarekin ezkondu zen eta 6 seme-alaba izan zituzten.

## ...ELGOIBARKO SEME KUTTUNA

1934ko irailaren 2an, D. Jose Ramon Balanzategi alkate zela, Muguruza familiari omenaldia egin zitzaion. Bertan, Pedro Elgoibarko "seme" izendatu zuten. 1946an herriko "seme kuttun" izendatu zuten Elgoibarren Julio Mugerza Dorronsoro alkate zela. Informazio gehiago nahi izanez gero, Muguruzaren irudia omendu eta gogoratzeko, Elgoibarko Elkarte filatelikoak urtero egiten duen erakusketan "Altzolako Dorretxea", bere bizitzari buruzko liburuxka argitaratu dute.



*Eskuman, lehena Pedro Muguruza.*

Pedro Muguruza, 6 anaia-arrebaren artean bigarrena, txikitatik nabarmendu zen ikasketetan, eta 23 urterekin Madrilgo Goi-mailako Arkitektura Eskolako bere promozioko lehena izatea lortu zuen. Bertan, eta oposizioz, proiektu-katedra irakasle izan zen, eta azkenean, zuzendaria. Mercedes Peironcely y Puig de Ia Bella Casa-rekin ezkondu zen, baina (bere anaiek bezala) ez zuen seme-alabarik izan.

## ARKITEKTOA BAINO ZERBAIT GEHIAGO

Arkitektoa baino zerbait gehiago zen: interes artistikoa edo ospe historikoa zuten piezak gordetzen zituen. Izaera kontserbadorea zuen eta klasizismoaren aldekoa zen. Marrazkilari handia zen, gaztaroan adibidez, zezenketari buruzko binetak argitaratu zituen, "The Kon Leche" aldizkarian.

**"Athletico Madrid" futbol taldeko jokalaria izan zen Pedro Muguruza**

## 4 ALDIZ FUSILATZEKO ZORIAN

Gerrate Zibilaren garaian (1936-1939) Francoren alde egin zuen. Iheslari asko hartu zituen etxean eta askori mugaraino lagundu zien. 1936. urteko uda kartzelaz kartzela pasa zuen eta 4 alditan egon zen fusilatua izateko zorian. Bere agindupean egondako Iangileek, igeltseroek eta peoiek, alegia, eragotzi zituzten fusilamenduak, estimu handitan baitzuten Pedro. Gerra amaitu ondoren, Arkitektura Zuzendari Nagusi izendatu zuten.

## FUTBOLARI APARTA

Athletico de Madrid futbol taldeko kolore zuri-gorriak jantzi zituzten aurreneko jokalarietako bat izan zen. C.D. Elgoibarren fundazioan ere lagundu zuen. Elgoibarrek partida garrantzitsuren bat bazuen, gauez egiten zuen


*Pedro Muguruza familiarekin. Eskumatik bigarrena*

bidaia bere herriko taldea indartzeko. 1935eko uztailaren 13an, garai hartan presidentea zen Fructuoso Iriondok, Ohorezko Lehendakari izendatu zuen Pedro Muguruza.

PROTEKTURIK EZAGUNENA: "VALLE DE LOS CAIDOS"J



Francoren aginduz, "El Valle de los Caidos"-eko (1940) basilikako proiektua egin eta lanak hasi ondoren, Muguruzaren osasunak txarrera egin zuen. Paralisi batek jo zuen, eta ibiltzea, marraztea eta ulertzea ere eragotzi zion. Saiatu zen gaixotasunari aurre egiteko erremedioak topatzen, baita Europan eta Ameriketan ere, baina emaitzarik gabe. Gaitzaren diagnosi zehatza ere ez zioten argitu. I952ko otsailaren 3an hil zen. Diego Mendez arkitektoak amaitu zuen lana. Franeisco Franco eta Jose Antonio Primo de Rivera diktadoreen eta Gerra Zibilean hildako 50.000 soldaduren gorpuak ehorzteko 22 metro altuko basilika eta 150 metrotako altuera duen gurutzea eraiki zituzten Sierra de Guadarraman.

KATANARRA ARKUA

Muguruzatarren etxearen sarrerako atea apaintzeko, "Etxeandi" dorretxeko arku errenazentista dotorea (XVI. mendea) ekarrarazi zuen Pedrok; Antzuolako "San Inazioren etxea" bezala ezaguna (antza, Magdalena de Loyolaren dotea, Inazioren arreba, honen ondorengoa zen Matilde Berroeta Bengoa, Muguruza Otaiiotarren amona amaren aldetik). Etxea bota zutenean (1969), Jose Maria eta Matilde Muguruza Otaño anaia-arrebek (Pedro jadanik hilda zegoen) Elgoibarko Udalari eman zioten arkua, eta honek, berriztatu eta udaletxearen ondoan egingo zen parkean jarriko zuela hitzeman zuen.



Proiektua gelditu egin zen, eta arkuaren hondarrak 28 urtez ibili ziren herriko biltegi batetik bestera. Azkenean, 1997ko abuztuaren 23an, San Bartolome jaien bezperan, herriko agintari eta Madrildik espreski etorritako senitartekoen aurrean, Muguruzatarren arkua aurkeztu zen. Giza Eskubideen parkearen sarreran dagoena da. Pedroren birraitonari, atleta eta ibiltaria bera, lekurik altuenera igotzeko ohitura eta trebezia zuenez, "Katanarra" ezizena jarri zioten. Ondorioz, Muguruzatarrek goitizen hori hartu zuten eta Muguruza Arkua ere, "Katanarra arkua" gisa ezagutzen da.

**Mugurazatareen etxea bota zutenean, Udalari eman zioten arkua famillakoek**

# Mugurgaren lanali

1- Cervantesi monumentua (Madril, 1920)
2- San Fernandoko Arte Ederren Akademia (Madril, 1921)
3- Prentsaren jauregia (Madril 1924)
4 -Jesusen bihotzari egindako monumentua (Bilbo, 1925)




5-Abastos Plaza (Elgoibar, 1924)
6-Calllao zinema (1928)
7-Villafranca de los Banoseko udaletxea, ikastetxea eta merkatua egiteko proiektua (Badajoz, 1929)
8-Pradoko Museoaren erreformak (1925, 1929, 1943)
9-Hondarribiko zezen plaza (1930)
10-Hotel Alba (Palm Beach, Florida, 1930)




11-Coliseum antzokia (Madril, 1934)
12-Historiaren akademia (Madril, 1931)
13-Tetuango turismo hotela (1932)
14-Hondarribiko Arrantzaleen auzoa (1939)
1 5 -Berlineko Espainiar enbaxada (1940)




16-E1 Valle de los Caidos-eko basilikako proiektua (Sierra de Guadarrama,1940)
17-"La Cruz Blanca" garagardo lantegia (1941)
18-Kontxako paseoko eraikuntza (1940)

2002-11-22

# "Triko Itzuliko azken etapa Eigoibarren amaituko da

## Goizeko etapa Santa Klaran amaituko da eta arratsaldean, kronoeskalada egingo da Azkarateko bide zaharrean gora.

Datorren apirilaren 12an, ostiralean, Elgoibarko Santa Klara auzoan amaituko da Euskal Herriko Itzuliko azken etapa. Ondoren, kronoeskalada San Pedron egiteko asmoa zuten arren, bertarako bidea apirilerako egitea ezinezkoa denez, Azkarateko bide zaharrean izango da.

Udaletik esan digutenez, "etapa, eguerdian, San Pedron amaitzeko aukera planteatu genuen hasieran, baina karrerako zuzendaritzak, Elgoibarko Lagun Taldeak eta Gure Bide elkarteak esan dutenez, txirrinduIariak igotako bide beretik jaitsi beharko Iirateke. Horregatik erabaki genuen etapa Santa Klaran amaitzea".




*Sari banaketa Plaza Handian egingo da*

Arratsaldeko Kronoeskaladarako honako ibilbidea antolatu dute: Plaza Handian irteera, Santa Ana kalea, Estazio kalea, San Roke, Mintxeta eta IMHtik jaitsi ondoren, Azkoitiko bide zaharretik etapa Kurutzeta baserrian amaitzeko (8,5 Km. gutxi gorabehera). Kronoeskaladaren ostean, sari banaketa Plaza Handian egingo dute.

**Aparkalekuak egokituta**

Txirrindulari lasterketa dela-eta trafikoak eta aparkalekuak bereziki prestatuko dituzte. Sigmako aparkalekuaren goiko partea babesle gonbidatuentzat eta agintarientzat prestatuko dute. Erdiko gunea, berriz, autobusentzat, ekipoen autoentzat eta beroketak egiteko. Lasterketa ikustera datozenek, Lerunen eta Olason aparkatu ahal izango dituzte autoak. Bestalde, hainbat kaletan autoak kenduko dituzte. Hala nola, Santa Klara, goizez, eta Santa Ana, Trenbide kalea eta San Roke, eguerditik. Mintxetako aparkalekua ere itxiko dute eta autoak ezingo dira pasatu Ermuaranbide kaletik. Gainontzean, herrian trafikoak ia normaltasunez jarraituko du.

Udaletik adierazi digutenez, Sigmako enpresetan eta Santa Klara eta Santa Anako komertzioetara eskutitzak bidali dituzte aparkaleku arazoei aurre egiteko kolaborazio eskatuz.

# Eibartar bat droga aldean eramateagatik atxilotu dute Eigoibarren

## Ertzaintza ikerketa egiten ari da asteburuetako *mobida* aztertzeko

Ertzaintzak 19 urteko A.C.S. eibartarra atxilotu zuen joan den zapatuan Elgoibarren sustantzia estupefazienteak saltzen ari zela. Deba kalean izan zen atxiloketa arratsaldeko 20:30 aldera. Une hartan ertzainak drogen prebentziorako kontrola egiten ari ziren eta hauts zuriarekin (speed-a ustez), 14 poltsatxo eta 15 pastilla (extasia) atzeman zizkioten. Komisariara eraman zuten gaztea eta astearte goizean, Eibarko epailearen aurrera.

Elgoibarko Udala eskualdeko ertzainen arduraduradunarekin bildu da larunbat arratsaldetan Elgoibarren gertatu ohi dena aztertzeko. Gauza jakina da "Azkena" dantzalekuaren kanpoko aldean eta Udaberri taberna kanpoan gertatzeni dena. Hori dela eta bizilagun askok kexak aurkeztu dituzte. Bestalde, Udalak asteburuetan herrian, alkoholaren



inguruan, egoten den jende mugimendua aztertu nahi du. Bileran Ertzaintzak azterketa bat egiteko erabakia hartu zuen. Jadanik eman dituzte ikerketarako lehen pausoak. Izan ere,aurrez aipatutako atxiloketa ikerketa honen baitan koka genezake.

**Tabernariekin bilera**

Udalak larunbat gauetan irekita egoten diren tabernen jabeekin ere egin du bilera eta besteak beste, honako gai hauetaz hitz egin dute: ordutegia, gaztetxoei alkohola zerbitzea eta basoak kalera ateratzeko baimena. Aurrez ere udaItzainek kontrolatzen zuten gaztetxoei alkoholik zerbitzen zieten ala ez, nortasun agiriak eskatuz.

2002-11-22

# Josu Mugerza sukaldaria New Yorken izan da bere jatetxea promozionatzen



Belaustegi jatetxeko Josu Mugerza sukaldaria New Yorkeko Manhattan auzoan izan da The Roger Smith hotelean bere jatetxearen promozioa egiten. Aurten seigarren urtez izan da bertan eta bisitariei degustazio menua eskaini die. 10 egunetarako joan da eta egunero bete omen da jantokia eta jende euskalduna ere gerturatu da. Izan ere, Josuk esan digunez New Yorken euskaldun asko dago. Leitza, Valladolid eta Madrilgo beste hiru sukaldari izan ditu lagun. Gertuagora bada ere, hurrengo bisita pentsatuta dauka Josuk. Datorren hilabetean Bartzelonara joatekoa da "Alimentaria" feriara.

# Mlimanjarora joandako emakume elgolbartarra taldeak Etnakunde Saria jaso du



Joan den otsailaren 14an jaso zuten Donostiako Kursaal Jauregian Emakunde Saria Kilimanjarora joandako 10 emakume elgoibartarrek. Beraiek egindako mendi espedizioa azalduz lan bat aurkeztu ostean, epaimahaiak saria merezi zutela uste eta kirol arloan talde hau izendatu du garaile Getxoko Emakumeen Rugby Talderekin batera. Emakume baten irudia islatzen duen oroigarri bat jaso zuten eta baita 750.000 pezetako diru saria ere,beste taldearekin erdibanatuta. Emakume mendizale hauek ilusioz hartu dute saria.

## Brigadako langileak kontratalzeko dor egin du Udalak

Udalak deialdi publikoa egin du brigadako langileen lan poltsa osatzeko. Eskariak egiteko orriak udaletxeko idazkaritzan jaso ditzakete interesatuek. Ondoren martxoaren 8ra arteko epea izango da eskariak aurkezteko. Erregistro Orokorrean egin beharko da astelehenetik ostegunera bitartean, goizez, 9:00etatik 14:00etara eta arratsaldez, 16:O0etatik 18:00etara. Ostiralean goizeko ordutegian eta larunbatean, berriz, goizeko 9:O0etatik 13:00etara.

## Olentzero egoneko argaildak Bgolbarko Izarran jaso daltezke

Olentzero egunean, abenduaren 24an, umeek Plazan Olentzero eta Mari Domingirekin atera zituzten argazkiak Toletxe tabernan izan dira ikusgai. Zuetariko batzuk argazkiak aukeratu zenituzten eta Atxutxiamaika Begirale Taldekoek jakinarazi nahi dute argazkiak Elgoibarko Izarran jaso ahal izango dituzuela datorren astelehenetik, hilaren 25etik aurrera.





tabigPuB

in52@ciffinug.2,5

egunero 7:00etan
i rekitzen dugu

San Frantzisko, 60
tel. 943741943

BAZAR
1
aentxin

Funtzionamenduan
dagoen negozioa salgai
tokala alokairuan
tel 943743536 Edendake erdotaaiant

### Euskal gizartean euskara derrigorrezkoa bihurtu behar dela esan du Ikastolen Elkarteko presidentea den Antonio Camposek

# EUSKARAK DERRIGORREZKO HIZKUNTZA IZAN BEHAR EUSKAL HERRIAN?



## ANTONIA VARGAS

**49 urte, etxekoandrea**

Derrigorrezkoa ez, inposatutako gauzak okerragoak dira. Bakoitzak ahal duena egiten du. Ongi iruditzen zait ikastea eta ni ere hitz egiten saiatzen naiz, baina zaila da.

## MERCHE ROORIGUEZ

**51 urte, etxekoandrea**

Derrigorrezkoa ez litzateke ezer izan behar. Aukera ona da euskaraz hitz egitea, baina inposatu gabe. Eginarazten digutena gogo txarrez egiten da askotan.






## JOSE KRUZELEGI

**80 urte, jubilatua**

Nik erderaz baino euskeraz eitxia nahixao dot, eta jendia euskeraz ikastera obligauko neuke. Hola nik danekin euskeraz ein ahal izango neuke.

## EMILIA NOGALES

**35 urte, ostalaria**

Bai, gainera egokia iruditzen zait biak, bai euskara eta baita gaztelania ere, jakitea. Umeek txikitatik ikastea eta erabiltzea da onena.





## ROLANOO TRUCIOS

**59 urte, komertziala**

Bai, ni kontu horretan gaizki nabil, eta pena bat daukat; nire garaian derrigorrezkoa gaztelania izatea euskara beharrean. Orain euskara derrigorrezkoa eta gaztelania bigarren mailakoa izan beharko litzateke.

## SABINO TXURRUKA

**67 urte, jubilatua**

Nere partetik bai, hemen hola bihar leuke. Geure hizkuntzia da euskeria. Erderia ezingo da kendu, baina lehenengo, beti, hemengua.



---

*I. URTEURRENA*
*2001eko otsailaren 20an,56urte zituela hil zen*
*ARANTXA ARRIOLA LETEren orotmenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian*
*larunbatean, hilak 23, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



# Elgoibarko Eskola Publikoa

**2002/2003 i kasturteko eskaintza**

**Aurrematrikula otsailaren 16tik martxoaren 1era**

## Elgoibarko Herri Eskola

**kalamua, 8**
**tel.:943 74 08 79**
**E-maila: info.elgolbar@edunanet.net**



j olastuz ikasi
kantatuz eta dantzatuz ikasi
maitatuz ikasi



pentsatzen ikasi
ulertzen ikasi
i ngurua ezogutzen ikasi

## Elgoibarko institutua

**San Roke, 1•Arregitorre, 2**
**tel.:943 74 80 19**
E-maila: bulegoa@elgoihar.hezitek.net



pentsatuz ikasi
ulertuz ikasi
i ngurua aztertuz ikasi

garapen pertsanala eto
autokantzeptua landuz
erabakiak hartu



**ITURAIN & ASOC.**
ZERBITZU INMOBILIARIO INTEGRALAK
**CONSULTING GROUP**

# ELGOIBARKO ERDIGUNEAN

## „Leku Ederren



- ETXEBIZITZAK
  . 2, 3 eta 4 logela
  . Egongela-jangela
  . Sukaldea
  . 2 bainugela.



- GARAJE PLAZA ITXIAK
  KOMERTZIORAKO LOKALAK
- KALITATEZKO ERAIKUNTZA
- ORDAINKETARAKO ERRAZTASUNAK

**PROMOZIOA eta SALMENTA Muno, S.A.**
Trenbidearen Zumardia 13-15 - AZKOITIA
Tel. 943 157 007 609 473 933

**INFORMAZIOA Iturain & Asoc.**
San Frantzisko, 44 • Tel. 943 748 801
Tel. 670 412 073

MAKINA ERREVAIÑIAFIEN INSTITU11JA

**Makina Erremintaren Institutuak aukera ezin hobea eskaintzen dizu:**

## TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA

**2002/2003 IKASTURTEA**

San Roke Auzoa, I
20870 Elgoibar
Tei. 943 74 41 32
Fax. 943 74 41 53
ingenieria@lmb.es
www.finh.es

- **Enpresarekin elkarlanean** garatutako lanbide-proiektua.
- **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik.
- **Emaitza erakargarriak:** tituludun %1 OOak **lanean** daude eta hauetatik %25ek zuzendaritzako ardurak hartu ditu.



**BILERA INFORMATIBOA**

**OTSAILAREN** 27an, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera-baldintzak azaltzeko.

18:30ean Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioak bisitatuko ditugu eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

cesi uitpine arentes IQNet ER Euskadi

KiliBaRRen



## Santa Eskean bildutako dirua Musika Eskolarentzat izango da

### 1.250 euro jasoko ditu Musika Eskolak



Musika Eskolako arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete santa Eskean atera ziren guztiei. Aurtengoan Musika Eskolarentzat izan da Santa eskean bildutako dirua. 2.254 euro bildu ziren guztira, eta oinarrizko gastuak ordaindu ostean, Musika Eskolak 1.250 euro jasoko ditu. Musika eskoiako arduradunek esan digutenez, Santa Eskean atera zirenei eskerrak eman nahi dizkiete, eta baita diru hori guztia batzea ahalbideratu duten mendarotarrei ere. Mendaroko Musika Eskola, aurtengo ikasturtean jarri zuten martxan, eta momentuz eginiko balantzea positiboa da. Onintza Loiolaren hitzetan, "hasieran beldurra geneukan. Ez genekien jendeak nola erantzungo zuen, proiektu berri honen aurrean, baina oso gustura gaude". Urte askotako lanaren fruitua da Musika Eskola, eta diruz larri dabiltza oraindik: "dirulaguntzak baditugu, baina Santa Eskeko dirua oso ondo etorriko zaigu instrumentu berriak eta materiala erosteko", esan digu Onintzak Adin guztietako jendea dabil Musika Eskolan, eta irakasleak oso pozik daude. Aurrerantzean, jaialdiren bat prestatzen ere saiatuko direla adierazi digute.

## Maria Asun Ulazia izango da Jubilatuen Etxeko presidente berria



Lagun Betikoak Jubilatuen Etxeak, zuzendaritza berria aukeratu du, eta Maria Asun Ulazia izango da presidenta berria. Orain arte, presidente ordea izan da Regina Garciaren lekua bete duena, Maria Asunek esan digunez, "gauzak finkatu egin behar ziren, eta egokiena direktiba berria osatzea zen". Maria Asun Ulazia lehen ere zuzendaritza taldean zegoen. Berak esan digunez, hasieran herritarrei eskatu zitzaien Jubilatuen Etxea zuzentzeko, baina ez zen inor aurkeztu luntario moduan. Hortaz, Lagun Betikoak elkarteko sozioek egin zuten aukeraketa. Lagun Betikoak Jubilatuen Etxeak, ekintza desberdinak antolatzen ditu urtean zehar, eta Maria Asunek esan digunez, horretan dihardute: "Oraindik ez daukagu ezer erabakita, baina datorren hilerako irteeraren bat eta karta joku lehiaketaren bat antolatzen ari gara".

## Kilimonek Pedruskoren kontra jokatuko du

Datorren jardunaldian, Pedrusko izango du aurrez-aurre Kilimonek. Iragan astean, puntu garrantzitsua Iortu ten mendarotarrek Seguraren kontra berdinduz. Hala ere, azkenengo postuan jarraitzen dute hamar punturekin. Kilimonek bi norgehiagoka bakarrik irabazi ditu, eta aste honetan irabaztea oso garrantzitsua izango da beraientzat. Izan ere, azkeneko postutik ateratzeko aukera izango baitute. Pedrusko taldea ere garaipenaren bila aterako da. Beraz, norgehiagoka gogorra ikusi ahal izango da Mintxetako futbol zelaian.

## Telefono gida berria kaleratuko dute Mendaron

"Tututu comunicaciones" empresa pribatuak, Mendaro eta Elgoibarko telefono zenbaki guztiak batuko dituen telefono gida kaleratuko du. mendaroko kasuan ordea, jende askok Euskaltel linea jarri du bere etxeetan, eta oso zaila da zenbaki berriak bilatzea. Hori dela eta, herritarren laguntza bahitaezkoa izango da.

o ca N E

KiliBaRRen Kolaboratzailea: AinYloa Andonegi. Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argilaratua.

# Umeak protaionista

Umeak izan dira Mendaroko inauterietaka protagonistak, Ostimi arratsaidez, Ikastolan jaialdia antolatu zuten, eta haur guztiek dantzaldia eskaini zulen. Pailazoz mozorrotuta, taide bakoitzak bere dantza egin zuen. Arratsalde fresk4xt eta na zen, baina San Jose ikastolako patioan ez zegoen hoizik. Kolore biziz janizi zituzten bazier guztiair, eta egun oso polita igaro zufen. Larunbatean, berriz, Kor-Kar taideak girotu zuen arratsaidea. Haurrez beteta zegoen frontoia, eta dantza egin gabe ziur ez zela inor efxeriatu. Tankera guztietako mozorroak ikusi ahal izan ziren. Guk inautedetako momenturik onenak bildu ditugu onclorengo argazkietan.

# Illendato















# ko karnabaletan

















# Erretratu zaharra



31 ilabete honetako erretratu zaharra **Udaleko artxiboko arduradunek** laga digute. Hala ere, ezin izan dugu jakin zein urtetakou den argazkia, eta ezta tartean egon daitezkeen pertsona ezagunen izenik ere, asko dira-eta. Ikusteko moduko erretratua dela iruditu zaigu ordea, begiak gozatzeko besterik ez bada ere. Agian, norbaitek ezagunen bat topatuko du bertan..

# osasuna

2002-11-22



IÑAKI **RIVERO**

**Potiologoa**

## ONICRICRIPTOSIS EDO ORBAINDUTAKO ATZAZKALA

Podologiako kontsultetan sarrien ikusten den gaitza da, izan ere, oinetako gaitzetan ohikoena da.

**Faktore eragileak:**

**Faktore sozialak:**

Oinetakoak: Puntaren presioa.



Takoi altua: Behatzak puntarantz botatzen dituzte eta presionatu.

0E. Gaizki moztu: Atzazkalak gaizki mozten dituzten pertsonak.

**Barruko faktoreak:**

Atzazkalaren forma (Teila erako atzazkala).

Atzazkal exostosia: Hezurra mugitu egiten da kozkor txiki bat atereaz.

••• Hiperbidrosia: Hezetasuna, izerdia.

Gehiegizko pisua.

**Faktore mistoak:**

Behatz deformeak.

c=1> Atzazkalaren jatorriko traumatismoa:

Atzazkala hasten den lekuan golperen bat hartuz gero, atzazkala orbaindu daiteke.

••• Pazienteak edo aditua ez den pertsona batek tratatutako atzazkalak.

Lesio mingarriak dira eta jendeak denbora luzerz tratatu gabe uzten dituenak.

**Tratamendua:**

Atzazkalak zuzen moztu.

cg• Sarritan gertatuz gero ebakuntza kirurgikoa egiten da, anestesia lokalarekin.

**Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra**


## Osasun txokuak

### MASAJ ISTAK
**Victoria Iraegi**
P. M. Urruzurio, 31 • Tel: **943 74 07 70**
Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK
**Kernen Belardenda**
(Medikuntza naturala. F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya Belardenda**
(Osasun naturalaren zure zentroa Elgoibarren. Inforrna zadez)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK
**Ikus Optiko-optometrista**
**San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK
**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK
**Ibiltzen**
Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**
Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Iñaki Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

gartIrteurrena

1952 2002



# "Euskaratik 4 hizkuntiatara, lehen hiztegi teknikoa kaleratuko du Kondiak"

*Kondia enpresak 50 urte beteko ditu aurten. Urteurren hau dela-eta, hainbat ekintza prestatu ditu makina erremintaren arioan hainbeste urtez lanean ari den enpresak. Besteak beste, Kondian erabiltzen diren hiizak bildu eta 5 hizkuntzatan hiztegia egin dute. Lantaldean Alberto Agirreazakiegi, Deñe Zabalo eta Maite Barandiaran ibili dira Kondiako beste hainbat kiderekin batera. Beraiekin izan gara hizketan, hiztegiaren nondik norakoak azcsitzeko..*



*Ezkerretik eskumara, Deñe Zabalo, Joseba Konde, Alberto Agirreazaldegi, Maite Barandiaran eta Ramon Alberdi.*

### Hiztegi bat kaleratu duzue. Zeri buruzko hitzak biltzen ditu?

Alberto: Makina erremintaren arluan ibiltzen dian hitzak biltzia zan lehenengo helburua. Batez ere, Kondian ibiltzen dian hitzak. Bi atal ditxu hiztegixak: batetik, mekanika eta bestetik, eiektronika.

### Zer dela-eta horrelako hiztegia?

